

Intxaurrondo

# Auzoak Topo geltokia izango du

**Eusko Jaurlaritzak auzoan Topo geltokia egingo duela jakinarazi du. Intxaurrondotarren aspaldiko eskaera zen hauxe. Geltokia, dirudienez, gabon aldera egingo da.**

ez dago garbi oraindik. Hala ere, Zilegi Basoen parkea aipatu da geltokia ezartzeko gune gisa. Asmoa Intxaurrondoko geltokia egun Loiola eta Herre-  
ra auzoak batzen dituen tunelean egitea da.

Intxaurrondoko geltokia proiektu handiago batekin lotuta dago. Izan ere, Donostiatik Irunera, Eusko Trenek hainbat geltoki jartzeko asmo du.

Esan bezala, geltokiaren eskaera ez da berria auzoan. Intxaurdi bizilagun elkarteak kide batek adierazi digunez,

**Intxaurdi elkarteak beharrezkotzat jotzen du geltokia**

*"badira hamar urte kontu honekin lanean hasi ginela".* Joan den urtean hiru auzo elkar-  
tek Topo geltokia egiteko proiektu zehatza aurkeztu eta sinadurak bildu zituzten. *"2.227 sinadura lortu genituen eta Amannekin elkartu ginenez",* dio Intxaurdiko kideak, *"baina azkenean proiektua atzera bota zuten, segurtasun faltagatik"*


Eusko Trenek egindako azterketa baten arabera, auzoan 2.000 lagunek erabiliko lukete

A.z

Urteak dira Intxaurrondon gora eta behera gabiltzala Topo geltokiaren kontuarekin. Azkenean, joan den astean, Alvaro Amann Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak baieztatu egin zuen auzoan geltokia jarriko dutela. Eraikuntza gabonak aldera egingo dela esan du, baina hala ere, geltokia non jarriko den

## Euskarazko Haur Jaia

Hilaren 18an, larunbata, 17.00etatik 19.00etara, Haur Festa egingo da Ipar Intxaurrondoko Bernart Etxepare plazan eta Ipar Haizea auzo elkar-  
tearen egoitzan. Plazara Goaz Euskara Taldeak antolatu du jai. Ohi bezala, jolasak eta tailerrak izango dira.



1 Loiolako geltokia 2 Intxaurrondon proposatutako geltokia

## Anartzen aldeko mobilizazioa

Joan den larunbatean manifestazioa egin zen auzoko kaleetan. Anartz Oartzabal libre utzi dezaten eskatzeko. Anartz Oartzabal duela bi aste atxilotu zituen polizia-  
k. Anartzian ETAKidea izatea leporatu diote Intxaurrondotar gazteari. Anartz Oartzabal ezetik beste hiru auzotar ere atxilotu dituzte azkenaldian eta haiekako bat, Aitor Soto, kartzelari dago gaur egun.



## euskararen donostia

patronatuak



Donostia Udala Ayuntamiento de San Sebastián

## Haur antzerkia

- **"Ni hartza naiz"**  
Teatro Paraiso  
Maiatzaren 18an, 18.00etan  
Lugaritz Kultur Etxean

## Musika

- **Mikel Tellera eta Mikel Markez**  
Maiatzaren 18an, 22.00etan  
Altza Kultur Etxean
- **Jean Michel Bedoagar**  
Maiatzaren 17an, 20.00etan  
Larrotxene Kultur Etxean  
eta
- **Etxekoekin kantari: Jon Bergaretxe, Izlar Zamora eta Ainhoa Ansa**  
Maiatzaren 23an, 20.00etan  
Larrotxene Kultur Etxean

## Bertsolaritza

- **Imanol Lazkano eta Jose Luis Gorroategi**  
Gai librean  
Maiatzaren 19an, 22.00etan  
Igeldoko elizan

## Haurrentzako Festa

- **Jokoak, tailerrak, jolasak...**  
Plazara Goaz euskara taldeak antolatuta  
Maiatzaren 18an, 17.00etan  
Intxaurrondoko Bernart Etxepare plazan eta Ipar Haizea elkartean
- **Talerrak**  
Haurrentzako sukaldaritza tailerrak  
Izenematea: maiatzak 20-24  
Larrotxene Kultur Etxean